

## **BORTXAZKO HAZIAK ARANTZAZKO LEGEDIA**

Donibane Lohitzune (2005.11.16)

Zuzenbidez hitz egin behar dugunez eta moraletik bereizi behar bagenu, indarra erabiltzearen aukera eta ahalmenean dagoela, esan beharko genuke. Hori horrela, zuzenbideak, aurrez, indar organizatu bat eskatzen du: zeren bidez, zuzenbideak bere eginkizuna burutu ahal izango du. Halaber, indar organizatua biltzen eta gidatzen duen goreneko erakundea Estatu da. Alegia, zuzenbidea eta estatuak hala nolako elkarrenganako lotura eta bitartekotasun nabaria dute. Estatuak dituen erakunde ezberdinen bitartez, bere indarra gordina itxura eraldatuz, moztortuz Zuzenbide bihurtzen du.

Arau juridikoek gizartearen egitura, hots, benetako konstituzio erreala zaintzera bideratuta daude, eta horrelako estatuetan edozelako arau moralik edota ezarritako legearen aurkako jokaerarik ez da inolaz ere onartuko. Beraz, gizartearen funtsezko egiturak mantentzeko ezartzen diren arauak jendearen hutsezko borondatean edo berezko atxikimenduan ez du utzi nahiko. Zuzenbideak, hain zuzen, derrigorrez betetzea eskatzen du eta gizakiaren jokabide publikoak aurre ikusten eta arautzen saiatuko da. Estatuak bere Zuzenbidearen bidez, edozein egoerari aurre egiteko derrigorrezko neurriak eta arauak izaten ditu, bere boterea arriskuan egon ez dadin.

Ezer baino lehen, zuzenbideak nola halako "azeri" jarduera azaltzen du. Legediak berak duen indar pozoitsu hori, beti beste indarren galeran erabiliko duela, kontuan hartzekoa da. Zuzenbideak, besteak beste, bere arau juridikoak bete ahal izateko indarrak baliatzeko posibilitatea du; moralari, berriz, indarraren erabilera ez dagokio, indarra elkartezina da moralarekin, alegia. Eta, noski, are gutxiago indar hori organizatua bada. Hain zuzen, morala zuzenbidetik indarraren enpleguagatik bereizten da. Hori horrela delarik, jarduera moralak indarra edota presioa jasanez gero bere izate galtzen du, zeren esandakoaren arabera edozein jarduera moralaren aurre baldintza askatasuna baita. Hitz gutxitan esanda, hori gabe ezin dugu esan ekintza moralik egon denik. Hitz gutxitan: askatasuna da giltza.

Indarkeriaren erabilpena edo bortxa, beti, biolentzi fisikoa edota psikikoa esanahi du. Indar hori banako edota talde bati zuzendurik dago. Herri bat denean, geure kasuan bezala, legediak herria izango du helburu. Beraz, legedia biolentzia hutsa da, ez du bestelako aurpegirik. Beti, esan bezala, norbaiten aurka. Legediak ez du inoiz, halabeharrez ez bada, bere benetako aurpegia erakusten. Teknikak eta zientzia ezberdinak erabiliak izango dira gordinkeri hori leuntzeko. Ipuinetan moduan edota magoen antzera indarkeria bake eta onuragarri bihurtzen jardungo dira; hori, izan ere, estatuaren azken helburua baita. Estatuak jainkoak bailiran jokatzen dute, ahalguztidunak balira bezala, alegia. Legedia ere beraiengandik eratorria santifikatua izango da. Botereak, -estatuak-, indarrean sostengatuak ez du bere parekorik bere lurraldeen edo estatu barnean, gainerantzeko botereak menpeko eta bertatik eratorriak izanik. Estatuarenak diren bere azpiko botereak bere izatea, iraupena bakarrik estatuarekiko menpekotasunean dute. Benetako botere autonomoak, soilik, sor

daitezke baldin eta estatuarekiko haria teinkatzen edo teinka egiten badugu. Horrelako egoerak, azken finean, haria lasaitzea edo etetea ekarriko du. Hariak teinkatuta egoteko ez baitu hainbesteko tinkotasunik, eta ezin du denbora luzean iraun; beraz behin apustua eginez gero, irabazi beharra, apurtu beharra dago.

Estatu inperialistetatik eratorritako legediaren inposaketak zaila dauka onespena izatea geure herrian. Hala ere, legediaren zama hori ez da soilik inperialisten lurraldeetara mugatzen mundu osora baizik. Lege inperialisten zigorra edo mehatxua ezin ahal izango dugu gainera kendu. Estatuaren bortxari ezin diogu ihes egin, atzean daramagu edozein lekura goazela ere. Geuk ez baditugu kateak apurtzen ezin izango dugu geure ordenamendu juridiko gorenekoa eta subiranoa eraiki. Eta bide batez, geuk eraturako legediaren anparoa bizi. Horrek bai izango duela eragina geure herriaren herrikideengan eta era guztietako ondasunak ekarriko lizkiguke. Geuk, zorionez, hori dena izan dugu, estatu bezala guztiz eraturakoa izan baikara. Geure Estatu goreneko erakunde politiko horretatik, beretik ez dugu eta ezin izango dugu abdikatu, halaber geure eskubideei ere ezin izango diegu uko egin. Konkistaren eraginez, oraingo geure Estatu minorizatutik, gutxiagotu izan den horretatik bakarrik etortzen eta etorriko zaizkigu geureak izango diren botere eta eskubideak. Geure foruak, hizkuntza, ohiturak eta abar geure Estatuaren oraingo sostengu eta biharkoaren oinarriak izango dira. Zoritxarrez geure eskubideak murriztuak ditugu boterea halakoa baitugu. Aldiz, botere osoa izanez gero, hau da, Estatu berreskuratuz gero, orduan bakarrik inperialisten estatuez eta beraien zuzenbideez abdikatzeko baitugu. Zama hori gainera kentzea geure askatasuna berreskuratzea litzateke.

Morala herrikoia ere, geure barne mundu morala bide horretan jarriko litzateke, kanpo askatasuna barne moralitatearen garapenerako baldintza baita.